

Orokorki esanda, artikuluko guztiei testuinguru zehatza falta zaie. Egoera ezezagun baten azalpenak eskatzen duen dekonstrukzioa zeharo falta da. Norbaitek Berlin edo Alemaniari buruz zerbait jakin nahi badu, artikuluko hauek irakurri ondoren... *wird gar nicht schlau*. Alderantziz, azaleko direnik ere ezin dut esan, zeren „azal“ hori ez da gai hauei dagokiona.

Aurreiritziak erabiltzen ditu; ez ditu „hinterfragen“, baizik eta „Stammtisch“ batean, berbetan dagoen koadrilak hitzez bezala, berak „paperean“ finkatzen ditu.

Idazlearen ikuspuntua inplizituki edo esplizituki azaltzen denez, honen jakitun jokatu beharko luke kazetariak.

Hutsunea

1. Lehenengoz gai honetarako irrika eza aipatzen du. Baina ez dio hariari jarraitzen. Ez du argi azaltzen zergatik heltzen dion gai honi: badirudi Alemaniak Europan duen indar ekonomikoarengatik dela. Ez ditu bereizten bere interes pertsonala, kazetari bezala edo komunikabideek izan dezaketen interesa.
2. Hauteskunde hauen ingurugiro „sintomatikoa“. Ideia batekin lilluratzeko gaitasun eza. Zergatik ez du aipatzen partidu politikoen programa eta beraien jardun politikoaren „Spagat“ konkretua? Eta orduan hauteskundean gertatutakoa kontestualizatu? Beharbada orduan eszenatokia argitu egingo zigun.

Neuköllneko Ibrahim

1. Kontextua: Zer da „bigarren hezkuntzako zentro bat“ hau? Zertan datza bere berezitasuna? „Institutuko“ ikaslea dela Ibrahim ere ezin da horrela utzi. Azaldu egin beharko litzateke „Bundesland“ bakoitzak bere hezkuntz sistema duela. Eta gutxienez orokorki nolakoa den ere azaldu. Orduan beharbada konparaketa bat egin eta „institutu“-ren antzeko instituzioa zein den azaldu.
2. Bigarren puntua: badirudi kanpotik etorri gare guztiok laguntza soziala jasotzen dugula. Eta horregatik Neukölln „Berlineko auzo behartsuenetakoa(n)“ dela...

Zenbat buru...

1. „Toleranteak“ ez du bestea onartzen. „Tolerantea“ baino gehiago dela eguneroko bizitza esango nuke nik. Askotan besteak baztertzen ere badakite hiri honetan bizi diren zenbaitek.
 - 1.1. Bikote mota „arraroak“... kategoria hori idazleak jartzen du.
2. Baby-boom-a ez dela Berlin guztian izan, baizik eta hiru auzotan ez du azaltzen. Hiria askoz ere haundiagoa da. Kontesturik ez dago hemen.
3. Idazleak aipatzen duen elkarrizketak zer azaltzen digu? Berlin haurdunaldiaren birusaz kutsatuta dagoela?

Aukerak

1. Oraindik „Pro Reli“-kanpainaren propaganda etxean daukat. Baina nik ezin izan nuen parte hartzerik izan, pasaporte alemana ez dudalako. Hau ez da artikulu hauetan azaltzen.
2. Testuingurua berriro falta da. Zergatik bakarrik Berlinen erreferenduma? Zein izan zen erreferendumaren akuilu? Nola jokatzten dute oinarriko eskolatan erlijio eta „Lebenskunde“ gaiekin. Bigarren hezkuntzako (Berlinen 5.n edo 7. mailatik gorakoentzat) ikasleek (batzuk behintzat) beraien iritziak komunikabideetan ere plazaratu zituzten.
3. Gaurkotasun haundiko gaia bada, zergatik joan zen jende gutxi botoa ematera?